

**KULTURA ETA TURISMO SAILA  
(HABE)**

HABERen Zuzendari Orokorraren abenduaren' 16eko EBAZPENA, 1986ko apirilaren 14eko eta maiatzaren 22ko Ebazpenek (90 eta 115 E.H.A.A.k) araututakoari jarraiki, HABERen menpeko Euskaltegietako ikasleek eginiko beka-eskariak onartuz.

21

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO  
(HABE)**

RESOLUCION del Director General de HABE de 16 de Diciembre de 1987, por la que se hace pública la relación de solicitudes de beca admitidas, y presentadas por alumnos de Euskaltegis dependientes de HABE, de conformidad con la regulación establecida en Resoluciones de 14 de Abril y 22 de Mayo de 1986 (B.O.P.V. num. 90 y 115 respectivamente).

21

**HERRIZAINGO-SAILA**

ERABAKIA, Administrazio eta Egitamugintzako Sailburuordeak 1987.eko Abenduaren 29an hartutakoa. Secrafonia digitala daramaten tresneriak akuratzeko egin den C.P.-886/87 zenbakiko Nornahirentzako Lehiaketa inori emateke gelditzten dela aldarrikatuz.

22

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

RESOLUCION de 29 de Diciembre de 1987, del Viceconsejero de Administración y Planificación del Departamento de Interior, por la que se declara desierto el concurso público número CP-886/87 para la contratación de equipos de secrafonia digital incorporada.

22

## Iragarpenak Anuncios

# Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

**KULTURA ETA TURISMO SAILA**

1

392/1987 DEKRETUA, Kultura eta Turismo Saileko Abenduaren 15ekoa; Consejo Vasco de Turismo/Euskal Turismoaren Kontseilua eratzeko.

Bere eraketa Dekretu honetan artikulatzen deneko Euskal Turismoaren Kontseilua, Euskal Autonomia Estatutoko 10.36 artikuluaren arabera, Turismoko gaietan, Euskal Herriko Autonomia Elkarteak duen agintepide osoaren eremuan sartzen da.

Agintepide hori ahalbait eta ondoen gauzatzeko, beharrezkotzat hartzen da, Turismoaren sektoreari eragiten dioten ekintzen arrazoizko garapena ahalezkoa egin dezaten ekinbide batzuk ezartzea. Ekinbide horiek finkatzea helburua bailitzan hartzen da, eta hori lortzeko enpresa eta entitateen -pribatu en sin publico-en laguntza eskatzen da, horiek, turismoaren munduan duten esperientzia zabalagatik, Administrazioaren aholkulari izan daitezkeelako.

Elkarritzearako bide izateko joera honekin, horretatik sortuko direla arrazoizko hazkun eta garapenaren onuragarri izan daitezen ekintzen proposamenak, Dekretu honek Euskal Turismoaren Kontseiluaren osakera, egitekoak eta ihardutze-erregimena finkatzen ditu.

Horren ondorioz, Kultura eta Turismoko Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritza Batzordeak 1987.eko

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO**

1

DECRETO 392/1987, de 15 de Diciembre, del Departamento de Cultura y Turismo, de creación del Consejo Vasco de Turismo/Euskal Turismoaren Kontseilu.

El Consejo Vasco de Turismo cuya creación articula el presente Decreto, se inserta en el ámbito de la competencia exclusiva que en materia de Turismo tiene, a tenor del artículo 10.36 del Estatuto Vasco de Autonomía, la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para el óptimo ejercicio de dicha competencia se observa necesario el establecimiento de una serie de directrices que posibiliten el desarrollo racionalizado de cuantas acciones incidan en el sector turístico. La fijación de dichas directrices se dibuja como una meta para cuya consecución se requiere la colaboración de las empresas y entidades, tanto públicas como privadas, que por su dilatada experiencia en el mundo del turismo puedan asesorar a la Administración.

Con este carácter de instrumento de diálogo de donde surjan las propuestas de cuantas acciones redunden en el crecimiento y desarrollo racional de nuestro sector turístico el presente Decreto establece la composición, funciones y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Turismo.

En consecuencia, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, previa deliberación y aprobación del

Abenduaren 15ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, zera

#### XEDATZEN DUT:

*Lehenengo Artikulua.*— Euskal Turismoaren Kontseilua sortzen da, Turismo alorreko Eusko Jaurlaritzaren izaera kontsultiboko organua izateko. Horren osakera, egitekoak eta ihardutze-erregimena Dekretu honetan finkatutakoak izango dira.

*Bigarren Artikulua.*— Euskal Turismoaren Kontseilua Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailari atxikita egongo da.

*Hirugarren Artikulua.*— 1.— Honako modu honetan osatuko da Euskal Turismoaren Kontseilua:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailburua, Lehendakaria izango dela.

b) Eusko Jaurlaritzako Turismoko Sailburuordea.

c) Autonomia Elkarteko hiru Foru Diputazioetako Diputatuak, edo horiek eskuemandako pertsonak.

d) Autonomia Elkarteko hiru Lurralde Historikoetako Hiriburuetako Alkateak, edo horiek eskuemandako pertsonak.

e) Euskal Herriko Ostalaritza Elkarteen proposamenez izendatutako hiru Bokal.

f) Euskal Herriko Bidai Agentzien Elkartearen proposamenez izendatutako hiru Bokal.

g) Euskal Herriko Turismoko kanpamenduetako titularren proposamenez izendatutako Bokal bat.

h) Euskal Herriko ur-beroen tegietako titularren proposamenez izendatutako Bokal bat.

i) «Bilboko Erakustazoka» Azoka Erakundearen proposamenez izendatutako Bokal bat.

j) Euskadiko Turismoko Informatzaile Elkartearen proposamenez izendatutako Bokal bat.

k) Euskadiko Ekimen Turistikoetarako Zentruen proposamenez izendatutako Bokal bat.

2. Dekretu honek indarra hartu eta 30 egun igaro ondoren, aurreko idaztian zerrendaratutako kolektiboren batek Bokalak izendatzeko beharrezko den proposamena bidaliko ez balu, Kultura eta Turismoko Sailburuak izendatuko ditu Bokal horien hutsuneak.

3. Euskal Turismoaren Kontseiluko osakideen artekit hautatuko da Aktetarako Idazkaria.

4. Bileretan eztabaidatuko diren gaietan berariz gaituak diren pertsonen lagunza eska dezake Kontseiluak. Pertsona horiek, hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe parte hartuko dute bileretan.

5. Euskal Turismoaren Kontseiluaren osakera alda daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuz edo, aldaketaren egokitasuna funtsezkotzat eman dezan txostenarekin batera, Kontseiluko osakideren batek proposatuz.

Aldaketarako proposamenaren onarpenak, osakideen erabateko gehiengoak hartutako aldezko botoa izan dezan akordioa beharko du.

*Laugarren Artikulua.*— Kontseiluko Bokalek bi urte iraungo dute karguan.

Consejo de Gobierno en su reunión del día 15 de Diciembre de 1987,

#### DISPONGO:

*Artículo primero.*— Se crea el Consejo Vasco de Turismo, como órgano de carácter consultivo del Gobierno Vasco en materia de Turismo. Su composición, funciones y régimen de funcionamiento serán los establecidos en el presente Decreto.

*Artículo segundo.*— El Consejo Vasco de Turismo estará adscrito al Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

*Artículo tercero.*— La composición del Consejo Vasco de Turismo será la siguiente:

a) El Consejero de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco que actuará como Presidente.

b) El Viceconsejero de Turismo del Gobierno Vasco.

c) Los Diputados correspondientes de las tres Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma, o personas en quienes deleguen.

d) Los Alcaldes de las Capitales de los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma, o concejales en quienes deleguen.

e) Tres Vocales nombrados a propuesta de las Asociaciones de Hostelería del País Vasco.

f) Tres Vocales nombrados a propuesta de la Asociación de Agencias de Viajes del País Vasco.

g) Un Vocal nombrado a propuesta de los titulares de campamentos de Turismo del País Vasco.

h) Un Vocal nombrado a propuesta de los titulares de establecimientos termales del País Vasco.

i) Un Vocal nombrado a propuesta de la Institución Ferial, Feria de Muestras de Bilbao.

j) Un Vocal nombrado a propuesta de la Asociación de Informadores de Turismo de Euskadi.

k) Un Vocal nombrado a propuesta de los Centros de Iniciativas Turísticas de Euskadi.

2. Si transcurridos 30 días desde la entrada en vigor del presente Decreto alguno de los colectivos enumerados en el apartado anterior no hubiera procedido a elevar la oportuna propuesta de nombramiento de Vocales, será el Consejero de Cultura y Turismo quien designe a los vacantes.

3. De entre los miembros que componen el Consejo Vasco de Turismo se elegirá un Secretario de Actas.

4. El Consejo podrá recabar la participación en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas. Las personas requeridas asistirán a las reuniones con voz pero sin voto.

5. La composición del Consejo Vasco de Turismo podrá ser modificada, por Decreto de Gobierno Vasco o a propuesta de cualquiera de los componentes del Consejo, acompañada de un informe que fundamente la conveniencia de la modificación.

La aprobación de la propuesta de modificación requerirá la adopción de un acuerdo con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros.

*Artículo cuarto.*— La duración en el cargo de los Vocales del Consejo será de dos años.

Aurreko idazatian adierazitako denbora igaro ondoren euren kargua utz dezaten Bokalek, berriz ere proposatuak eta izendatuak izan daitezke epealdi berriatarako.

Eriotza, ezgaitasuna, uko egitea edo bestelako ondorioz gerta daitezen hutsuneak, Entitateari jakinatziko zaizkio, horrek ordeazkoak izendatu ditzan.

*Bosgarren Artikulua.*— Honako hauek dira Euskal Turismoaren Kontseiluaren egitekoak:

a) Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko fenomeno turistikoaren ezagupenak hobetzeko, intereskotzat jo ditzan gaien azterketa eta analisia.

b) Euskadiko Turismoaren garapenaren aldeko eragina izan dezaketen neurriei buruzko gomendioak ematea.

c) Eusko Jaurlaritzak, Turismo alorrean, eska diezazkion txostenak aurkeztea.

d) Urteko ekintzen txostena gertatzea, onartzea eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztea, Lehendariaren bidez.

e) Eusko Jaurlaritzak espreski bere esku utz ditzan gainerako guztiak, edo Legeek eta Erregelamenduek eskura diezazkiotenak.

*Seigarren Artikulua.*— 1.— Ohizko eta ezohizko bilkurak egin ditzake Kontseiluak.

2. Ohizko bilkurak hiruhilabetero egingo dira.

3. Ezohizkoak, Lehendakariak bere kabuz egoki deritzonean edo Kontseiluko osakideen herenak eskatu ondoren, egingo dira.

4. Bai batean zein bestean, bilkuretarako deia Lehendakariak egingo du, gutxienez 10 egun aurrerago.

*Zazpigarren Artikulua.*— Kontseiluak, bere iharduera eta akordioa hartzeko sistema erregulatuko duen Barne Erregimenerako Erregelamendua gertatuko du; hori gertatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaburuaren eritzipean jarriko da, horrek, Era-baki bidez onartuko duela.

*Zortzigarren Artikulua.*— Eztabaidearen gai diren gaietako hala eska dezatenean, Teknika Batzordeak eratzea akorda dezake Kontseiluak. Akordio horrek, osakera, helburua, iraupena eta sortutako Batzordea egokitze beharko zaieneko baldintzak finkatuko ditu.

*Bederatzigarren Artikulua.*— Kontseilua eratzearen eta horren ihardunaren ondorioz sor daitezen gastuen finantziaketa, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren Aurrekontuetan sartuko den partidaren pentzutan egingo da.

*Hamargarren Artikulua.*— Kontseiluko osakideek, Irailaren 17ko 307/1985 Dekretuak zehazten dituen bidai eta dieta gastuetarako eskubidea izango dute.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak izan daitezen xedapenak emateko baimena ematen zaio Kultura eta Turismo Sailburuari.

Los Vocales que cesaren en su cargo por transcurso del tiempo establecido en el apartado anterior, podrán ser propuestos y nombrados para nuevos periodos.

Las vacantes que pudieran producirse como consecuencia de defunción, incapacidad, renuncia o similar, serán puestas en conocimiento de la Entidad para que proceda a designar un sustituto.

*Artículo quinto.*— Serán funciones del Consejo Vasco de Turismo:

a) El estudio y análisis de cuantas cuestiones considere de interés el Gobierno Vasco para mejorar el conocimiento del fenómeno turístico en Euskadi.

b) La emisión de recomendaciones sobre medidas que pudieran incidir favorablemente en el desarrollo del Turismo en Euskadi.

c) Presentación de cuantos informes le sean solicitados por el Gobierno Vasco en materia de Turismo.

d) Elaborar, aprobar y presentar al Gobierno Vasco, a través de su Presidente la memoria anual de actividades.

e) Cualesquieras otras que le fueran confiadas expresamente por el Gobierno Vasco, o le atribuyan las Leyes y Reglamentos.

*Artículo sexto.*— El Consejo podrá celebrar sesiones ordinarias y extraordinarias.

2. Las sesiones ordinarias se celebrarán con una frecuencia trimestral.

3. Las extraordinarias se llevarán a cabo cuando el Presidente lo considere oportuno o se lo solicite la tercera parte de los miembros del Consejo.

4. Tanto en uno como en otro caso, las sesiones serán convocadas por el Presidente con una antelación mínima de 10 días.

*Artículo séptimo.*— El Consejo elaborará un Reglamento de Régimen Interior que regulará el funcionamiento del mismo y su sistema de adopción de acuerdos, elaborado el mismo, será sometido a la consideración del Consejero de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, quien lo aprobará por Resolución.

*Artículo octavo.*— El Consejo podrá acordar la formación de Comisiones Técnicas cuando el carácter específico de los asuntos a tratar así lo aconseje. El Acuerdo determinará la composición, objeto, duración y demás condiciones a las que habrá de ajustarse la Comisión creada.

*Artículo noveno.*— la financiación de los gastos que se originen como consecuencia de la creación y funcionamiento del Consejo serán a cargo de la correspondiente partida que se incluirá en los Presupuestos del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

*Artículo décimo.*— Los miembros del Consejo tendrán derecho a los gastos de viaje y dietas que determinan en el Decreto 307/1.985, de 17 de septiembre.

## DISPOSICION ADICIONAL

Se autoriza al Consejero de Cultura y Turismo para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

**ALDIBATERAKO XEDAPENA**

Kultura eta Turismoko Sailburuak Dekretu honen 7. artikuluak aipatzen duen Euskal Turismoaren Kontseiluaren Barne Erregimeneko Erregelamendua onar dezan bitartean, horren iharduna eta akordioak hartzeko erregimena, 1958eko Uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legeko I Idazpuruko II Atalburuan xedatutakoari egokituko zaio, Dekretu honetan xedatutakoaren aurka joan ez daitezen arlo guztieta.

**AZKEN XEDAPENA**

Dekretu hau E.H.A.O.-ean argitaratutako egunean berean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 1987eko Abenduak 15.

Lehendakaria,  
**JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.**

Kultura eta Turismo Sailburua,  
**JOSEBA ARREGI ARANBURU.**

**DISPOSICION TRANSITORIA**

En tanto en cuanto, el Consejero de Cultura y Turismo apruebe el Reglamento de Régimen Interior del Consejo Vasco de Turismo a que se refiere el artículo 7 del presente Decreto, su funcionamiento y el régimen de adopción de sus acuerdos se ajustará a lo dispuesto en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de julio de 1.958, en todo lo que no contradiga a lo dispuesto en el presente Decreto.

**DISPOSICION FINAL**

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de Diciembre de 1987.

El Lehendakari,  
**JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.**

El Consejero de Cultura y Turismo,  
**JOSEBA ARREGI ARANBURU.**

## **Agintariak eta Lanarigoa Autoridades y Personal**

### **Izendapenak, egoerak eta gora-beherak Nombramientos, situaciones e incidencias**

#### **KULTURA ETA TURISMO SAILA (HABE)**

2

HABErn Zuzendari Orokorraren 1987eko abenduaren 15eko EBAZPENA, Erakundearen Ikuskatzaileta Sailean Jon Ajuria Fisure Jaunari Bizkaiko Lurralde-Ikusatzaitzaile izendapena kenduz.

Ekainaren 25eko 29/1983 Legeak bera hamargarren artikulan xedatzen du Erakunde Autonomo honetako Ikuskatzaileta Saileko izendapen eta kentzeak Erakundeko Zuzendari Orokorraren esku egongo direla. Ondorioz, Sail horretako aldaketak direla eta,

#### **EBAZTEN DUT:**

*Lehenengo.– Jon Ajuria Fisure Jauna Bizkaiko Lurralde-Ikusatzaitzatik kentza, Administrazioko beste postu baterako izendatua izan delako.*

*Kentze honek 1988eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du bere indarra.*

Donostian, 1987eko abenduaren 15ean.

HABErn Zuzendari Orkorak,  
**JOXE JOAN G. TXABARRI MIRANDA.**

#### **DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO (HABE)**

2

RESOLUCION de 15 de Diciembre de 1987, del Director General de HABE, por la que se determina el cese de D. Jon Ajuria Fisure en la Sección de Inspección del Ente.

El artículo décimo de la Ley 29/1983, de 25 de Noviembre, dispone que los nombramientos y ceses de los Inspectores adscritos a la Sección de Inspección del Instituto Autónomo, serán competencia del Director General del Ente, por lo que, en razón a los necesarios cambios existentes en esta Sección,

#### **RESUELVO:**

*Primero.– Cesar como Inspector Territorial de Bizkaia, y por razón de ser destinado a otro puesto de la Administración, a Don Jon Ajuria Fisure.*

*Este cese tendrá efectividad a partir del día 1 de Enero de 1988.*

En Donostia, a 15 de Diciembre de 1987.

El Director General de HABE,  
**JOXE JOAN G. DE TXABARRI MIRANDA.**